



# 2021EKO **MEMORIA**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# 2021EKO MEMORIA

## Aurkezpena 3

### 1. Azterlan kuantitatiboak 4

- ARTEEI, KULTURA-INDUSTRIEI ETA SORMEN-INDUSTRIEI BURUZKO ESTATISTIKA (2019) 4
- KULTURA-ALORREKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA (2020) 4
- KULTURA-OHITUREN LUZETARAKO PANELA 5
- ENPRESA-KONFIANTZAREN ADIERAZLEAK 5
- SERIE BEREZIAK 5
- BESTELAKO ESTATISTIKAK 5

### 2. Azterlan kualitatiboak 6

- DURANGOKO AZOKAREN ONLINE ESPERIENTZIAREN AZTERKETA 6
- EUSKADIKO HIRUGARREN KULTURA-SEKTOREA PENTSATZEKO GAKOAK 6
- KULTURA-OHITURA DIGITALAK: JOERAK ETA GAKOAK 6
- ARTISTAREN ESTATUTUAREN GARAPENA: DEFINIZIOAK ETA LEHENTASUNAK EAE-RAKO 7
- IRAKURKETA-OHITURAK: IRAKURLEEN SEGMENTAZIOA ETA EZAUGARRIAK 7
- ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALA AZTERTZEKO TRESNAK 7
- ADDE EUSKAL HERRIKO DANTZA PROFESIONALEN ELKARTEA 7
- KULTURA EUSKARAZ 7
- GAIKUNTZA KULTURAKO LANBIDEETAN 8

### 3. Kulturklik 9

### 4. Komunikazioa 10

- WEB-ATARIA EGUNERATZEA 10
- SARE SOZIALAK 10
- IKASTARO ETA JARDUNALDIETAKO PARTE HARTZEA 10

### 5. Beste jarduera batzuk 11

### 6. Behatokiaren lana zifratan 11



# AURKEZPENA

*Kulturaren Euskal Behatokiak* (KEB) 2021eko memoria aurkezten du, pandemia-garaietako berezko zalantzekin hasi eta amaitu zen urtekoa. Ezaugarri hori azpimarratu beharra daukagu, urte hori ezin baita aztertu ekitaldi horretako zuhurtzia ulertu gabe.

Urteko Memoriak ekitaldi bakoitzeko informazioaren eta sortutako ezagutzaren bilduma eta laburpena izaten dira, eta Behatokiaren lana antolatzeko balio duen eskema kuantitatibo-kualitatiboari jarraituz egoten dira egituratuta. Planteamendu horretatik abiatuta ematen dira egindako azterlan nagusien xehetasunak.

2021ean, hiru gai nabarmentzen dira:

- \_ Hausnarketa egitea, Kultura eta Sormen Industrien perimetroa hedatzeari eta definitzeari buruz eta hori guztia estatistika-esparrura modu praktikoan eramateari buruz.
- \_ Programa testuingurura egokitzea, hau da, aurreikusitako agendaren konpromisoa betetzea eta eskari berriei tokia egitea aldi berean.
- \_ Komunikazioan sakontzeko esfortzua egitea. Webgunea indartu da, sareetan presentzia handiagoa daukagu eta hainbat mintegitan hartu da parte.

Aurtengo lanaren emaitzak jarraipena ematen die duela hainbat urtetik lan honek dituen bi ildo: ildo estatistikoari eta ildo kualitatiboari. Batetik, eragiketa handiak sendotu eta zabaldu egin dira, koitunturazko panelak testuinguruaren informazio-beharretara egokitu dira eta proiektuak hasi dira, unibertsitateekin lankidetzan. Bestetik, XXI. mendeko kultura-politiketan puri-purian dauden gaiez hausnartzeko prozesuak abiatu dira, Behatokiak orain arte jorratu ez dituen gaiei buruzko azterketa analitikoak egin dira eta beste sektoreekin ditugun harremanak areagotu dira.



# 1. AZTERLAN KUANTITATIBOAK

Estatistikak egitea lan konplexua denez, arlo honetan mantso baina etengabe ari gara lanean. Jakina denez, Behatokiaren bi eragiketa nagusiak bi urtez behin egiten dira (arteak, kultura-industriak eta sormen-industriak urte bakoitietan; eta finantzaketa eta gastu publikoa urte bakoitietan); eta bestetik, luzetarako bi panelak (parte-hartze kulturala eta enpresen konfiantza) urtero egiten dira. Horrek esan nahi du aldi berean egin behar direla informazioa biltzeko atazak diseinatzen eta martxan jartzeko lanak, batetik, eta hedapen-produktuak aztertzen eta lantzen lanak, bestetik. 2021ean honako lan hauek egin dira:

## ARTEEI, KULTURA-INDUSTRIEI ETA SORMEN-INDUSTRIEI BURUZKO ESTATISTIKA (2019)

Estatistika bikoitz honen emaitzak argitaratu dira; edizio honetan 1.055 eragileren parte-hartzea izan du, arteetako eta kultura-industrietako 701 eragileak eta sormen-industrietako 354ak batuz gero. Ikuspegi globaletik, 800 milioi euro inguruko sarrera-bolumen metatua dute eta 7.000 langile dituzte.

Emaitza nagusiak honako txosten hauetan aztertu dira:

→ **Arteak eta kultura-industriak**

- “Ikuspegiak” txostena
- Sektore bakoitzeko txostenak

→ **Sormen-industriak**

- “Ikuspegiak” txostena
- Sektore bakoitzeko txostenak

• **Datuen laburpena**

## KULTURA-ALORREKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA (2020)

Egindako lanaren ardatza sektore sortzaileetako finantzaketa eta gastu publikoaren eragiketa berria diseinatzea izan da, edizio honetako berritasun nagusia eragiketa hori izan baita. Sektoreko estatistiketan bezala, sormen-industriak sartu dira; izan ere, Kultura Sailak sormen-industrien baitan egindako apustuaren ondorioz, sektore horiei eskainitako gastu publikoaren ezaugarriak ezagutu dira.

Azpimarratu beharra dago hedatutako perimetro honetako eragiketaren diseinua konplexua izan dela eta erronka metodologikoa izan dela; eragiketa garrantzitsu horren emaitzak 2022an argitaratuko dira. Gogoan izan behar da sormen-sektoreei eskainitako gastu publikoaren azterketarako ezaugarri horiek dituen aurrekaririk ez dela.



## KULTURA-OHITUREN LUZETARAKO PANELA

Panelaren → **zazpigarren edizioak** ikuspegi baliotsua eskaintzen du COVID-19aren eraginaren berri izateko kultura-eskariaren eta -ohituren ikuspegitik, eta azterketarako tresna gisa duen indarra berretsi da. 2020ari buruzko emaitzek beste azterlan batzuetan pandemiaren eragin heterogeneoari buruz egindako behaketak areagotu dituzte, eta publikoak ardatz dituen ikuspegi erabili denez, ezaugarriak hobeto ondorioztatu ahal izan dira. Behatokiak panelaren balorazio oso positiboa egiten du, errealitatea islatzeko eta joerak aurreratzeko gaitasuna baitu.

## ENPRESA-KONFIANTZAREN ADIERAZLEAK

Berrikuntza nagusia EKA panela bikoiztea izan da, sormen-industriak gehitu baitira; ondorioz, 70 eragile gehiago aztertu behar izan dira. Hasieran, EKA panela 2020ko irailean egitea aurreikusten zen, baina kontuan izanik zer-nolako egoera ari diren bizitzen kultura- eta sormen-enpresak eta -eragileak, 2021 hasierara atzeratzea komeni zela iritzi zen. Pandemiak sektoreetan izan duen ondorioari buruzko galdera batzuk gehitu dira.

Emaitzak honako esteka hauetan daude eskuragai:

- Panela: **Arte eta Kultura Industrien Enpresa Konfiantza Adierazleen panela**
- Panela: **Enpresa-konfiantzaren adierazleen panela**

## SERIE BEREZIAK

- **EAEko kultura- eta sormen-industrien perimetroa**

Datozen urteetan Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin lankidetzan garatu beharreko kultura- eta sormen-industrien kokapenaren azterlanen testuinguruan egin da lehenengo txostena. Euskal Autonomia Erkidegorako kultura- eta sormen-industrien perimetroaren berrikuspenera dakar agiriak, kultura- eta sormen-industriak gainerako sektore ekonomikoen parean jarri ahal izateko. Berrikuspen honekin, sektorea mugatu nahi izan da,

etorkizuneko ikerketei ekiteko erabilgarria izan dadin, haiek osatzen dituzten jardueretatik, sektorearekin lotutako okupazioetatik eta eduki sortzaile eta kulturala duten produktu eta zerbitzuetatik abiatuta.

- **Ikusiker panela**

Ikusiker Panelaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gazteek daukaten ikus-entzunezkoen kontsumoa eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera aztertzea. 2018-2019an abian jarri zenetik, gai ugari landu dira. Applika+ ikerketa-proiektuaren baitan garatutako lanen barruan kokatzen da Panela eta bertan parte hartzen dute UPV/EHUko, Tabakalerako, EITBko eta Kulturaren Euskal Behatokiko lantaldeek.

## BESTELAKO ESTADISTIKAK

Behatokiaren webgunean, halaber, EAEko argitalpenen errealitatea ezagutzeko egin diren azterlanak argitaratu dira, zeinak Euskadiko Editoreen Gremioarekin koordinatuta egin baitira.

- **EAEko argitalpena - Barne-merkataritza**
- **Euskarazko edizioa**



## 2. AZTERLAN KUALITATIBOAK

Politika kulturalen agenda markatzen duten gaietan sakontzeko egiten diren azterlanak dira. Gaien kataloga konfiguratzeko, planteamendu integral bat hartzen da, zeinak barne hartzen baititu bai alderdi sektoriala, bai bokazio publikorako politikak, behar kolektiboei eta interes orokorrari erantzuteko bideratzen direnak.

### → DURANGOKO AZOKAREN ONLINE ESPERIENTZIAREN AZTERKETA

Durangoko Azokaren 2020. urteko 55. edizioa pandemia kontrolatzeko ezarritako baldintza sanitarioak eraldatzeko eta baldintza horietara egokitzeko lanaren ondoren egin zen. Ildo horretan, sortzaile, editore eta banatzaileen postuen gune fisiko tradizionalik gabe garatu zen eta online saltzeko gune bat gaitu zen. Jardueretan ere erasana izan zuen pandemiak: edukiera-murrizketekin egin ziren eta jarduerak grabatu eta online emanda osatu ziren. Gainera, kanpaina bat bultzatu zen liburu-dendetan, eta haren bidez, lurraldeko hainbat tokitara helarazi ziren Azokako katalogoko hainbat produktu. Azterlanak Azokaren esperientzia digitala aprobetxatu du haren funtzionamendua eta emaitzak aztertzeko, eta kultura-sektore osoaren hausnarketarako eta ikaskuntzarako elementuak ekarri ditu.

### → EUSKADIKO HIRUGARREN KULTURA-SEKTOREA PENTSATZEKO GAKOAK

Azterlanaren asmoa da Euskadiko hirugarren kultura-sektorea aztertzeko beharrezkoa den oinarri kontzeptualaren eta metodologikoaren ekarpena egitea, gizarte eragile garrantzitsua baita politika publikoen garapenean. Behatokiak hirugarren sektorearen berariazko azterketa egin duen lehenengo aldia da, azterlan kualitatibo eta kuantitatiboetan zeharka aztertu izan duen arren. Sektorea ezaugarritzeko gakoak, sektorea ulertzeko moduak eta berezkoak dituen dinamikak eman dira. Bigarrenik, eskuragarri dauden neurketa-tresnak kritikoki errepasatu dira, eta arlora hurbildu gara tresna horiek oinarri hartuta. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Ofiziala aztertu behar izan da, baina baita Behatokiaren beste estatistika batzuk ere, hala nola Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistika edo EAEko parte-hartze kulturalari buruzkoa. Amaitzeko, diagnostiko bat egin da, inspirazio-elementuak identifikatu ahal izateko, hirugarren sektore kulturala eta izan ditzakeen ondorioak (sozialki positiboak) sustatzeko eta finkatzeko gai diren politikak egite aldera.

### → KULTURA-OHITURA DIGITALAK: JOERAK ETA GAKOAK

Kultura-ohitura digitalen gaia jasota zegoen Kulturaren Euskal Behatokiaren Jarduketa Planean COVID-19a agertu aurretik. Orokorrean irizten denaren arabera, COVID-19ak digitalizazio-dinamikak sakontzea ekarri du, hau da, bizkortzaile bat izan da; horregatik, txostena bereziki garrantzitsua da.



## ARTISTAREN ESTATUTUAREN GARAPENA: DEFINIZIOAK ETA LEHENTASUNAK EAE-RAKO

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eskari bati erantzuten dio azterlanak, "artista" izatearen eta etorkizunean har daitezkeen zerga-neurrietan sar daitezkeen jardueren definizioan aurrera egiteko. Ildo horretan, azterlanean sartzen dira hauek:

- \_ Nazioarteko –bereziki Alemania, Frantzia eta Belgika– artistaren estatutuaren inguruko legedien eta politiken azterketa konparatua.
- \_ "Artista" izatea definitzeko proposamen batzuk, balizko kasuistikekin eta balizko neurriek ukituko lukeen kolektiboaren mugekin, nazioartean egindako beste azterlan batzuk kontuan izanda.

## IRAKURKETA-OHITURAK: IRAKURLEEN SEGMENTAZIOA ETA EZAUGARRIAK

Kultura Ondarearen Zuzendaritza irakurketaren inguruan sustatzen ari den ekintzekin koordinatuta dago azterlana, eta irakurtzen dutenak nahiz irakurtzen ez dutenak ezaugarritu nahi dira. Behatokiak *2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko parte-hartze kulturalari buruzko inkestatik* dituen datuak oinarritzat hartu eta publikoak irakurketa-ohituren arabera segmentatzeko berariazko azterketa egin da. Segmentazio horrekin zenbait aldagai aztertu daitezke, hala nola ohitura horiek hartzeko familiak duen eragina. Horrez gain, profil kulturala, bizi-zikloaren pisua eta profil demografikoa identifikatu daitezke, baita egoera ekonomikoa ere. 66. Soziometroko elementuak ere sartu dira, irakurlearen jarreraren sakontzeko (formatuak, erosketak eta genero gustukoenak), baita kulturarekin lotutako profil kulturala osatzeko ere.

## ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALA AZTERTZEKO TRESNAK

Eragin ekonomikoa aztertzeko proposamen estandarizatu bat egitea da xedea, nahiz programa, proiektu eta jarduera zehatzen ebaluazioari nahiz ekipamendu eta instituzioen ebaluazioari estaldura orokorra emateko gai izango dena maila ekonomikoan eta sozialean. Gida metodologiko bat egin nahi da, kultura-erakundeek eragin zuzena, zeharkakoa eta induzitua errazago kalkulatu dezaten. Gida horrek zer diren eta

nola kalkulatu diren azaltzea da asmoa, prozedura, informazioa lortzeko bideak eta dimentsio desberdinak neurtzeko adierazle egokiak deskribatuta. Azterlanarekin batera aplikazio bat dago, adierazleak automatikoki kalkulatzeko.

## ADDE EUSKAL HERRIKO DANTZA PROFESIOALEN ELKARTEA

Sektoreko eskarien inguruko azterlanen baitan, Behatokia ADDErekin elkarlanean ari da EAEko dantza profesionalaren sektorearen inkesta diseinatzen eta egiten. Premiazkoa eta beharrezkoa iruditzen zaio dantzaren kolektibo profesionalaren osaera ezagutzeko eta elkartean ezartzeko moduko metodologia bat garatzea.

Proposamen metodologiko bat egin da hauekin guztiekin: edukiak eta adierazleak, informazioa lortzeko bideak eta emaitzak aurkezteko lantegia, inkestaren diseinuko giltzarriak eta ustiaketan kontuan izateko elementuak lekualdatzeko, inkesta etorkizunean garatzeko behar adina tresna izan dezan ADDEK.

## KULTURA EUSKARAZ

Behatokiaren eragiketa guztietako zeharkako edukia da euskarak kulturaren duen presentzia. Ondorioz, azterlan guztietan dago, baina ez da azterlanaren ardatza izaten.

Azterlanari ikuspegi sektoriala emateko asmoa dago, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien kultura-politikei hizkuntzaren ikuspegitik egindako azterketa sartuz. Testuinguruari eta indarrean diren politikei buruzko sarrera bat izango du, Behatokiaren eta hizkuntza-politikaren estatistiketako datuak dituen kapitulu bat eta proposamenak bilduko dituen beste bat. Ohiko kultura-sektoreez gain, komunikabideak ere sartuko dira, euskarazko kultura babesteko pisu handia dutelako.



## **GAIKUNTZA KULTURAKO LANBIDEETAN**

Erabat desberdina eta aldakorra den mundu honetan, kulturako lanbideek gaikuntzak berritu beharra dute. Errealitate digitala eta publikoarekin komunikatzeko eta harremanak izateko modu berriak bilatzeko beharra dira aldaketa horien adibideetako bi. Europan kulturaren alorrean dagoen ildo nagusienetako bat da. Kulturako lanbideetan belaunaldi arteko aldaketa dugun une honetan, beharrezkoa da gai hori profesional guztien beharren ikuspegitik ez ezik, prestakuntza-eskaintzetatik ere aztertzea.





### 3. KULTURKLIK

Kulturklik, euskal-kulturako erreferentziatzako ataria, etapa berri batean sartu da, Behatokiaren bidez Kultura sailburuordetzaren mendekotasun organikoa baitu orain. Kulturklik plataforma komuna da, irekia eta Euskal Herriko kultura-eragile guztiekin partekatua, jardueren nahiz interakzio- eta komunikazio-bide berrietara egokitzen diren baliozko edukien berri emateko. Kultura-ekitaldiez gain, informazio kulturalaren berri ematen du bertatik bertara, eta kultura-sorkuntzen eta -industrien hedapena egiten du.

Bi atal nagusi ditu, bata orokorra, eta bestea kulturako profesionalentzako.

- Atal OROKORRA herritarrentzako da, edozein kultura-agerraldi interesatzen zaienezako, eta kulturako ekoizleen, sortzaileen eta industrien hedapena du xede.
- Atal PROFESIONALAREN xedea, aldiz, kulturako sektore guztietako profesionalentzako topagune izatea da, eta kultura-eragileei dago zuzenduta.

Hona hemen Kulturkliken 2021eko argazki kuantitatiboa:

2021ean argitaratutako edukiak		Eragina 2021	
<b>OROKORRA</b>	<b>21.702</b>	<b>WEBGUNEA</b>	
Gertakariak	16.832	Bisitak	822.574
Albisteak	2.927	<b>ASTEROKO BULETINA</b>	
Sorkuntzak	1.943	Bidalitakoak	52
<b>PROFESIONALA</b>	<b>1.105</b>	Harpidedunak	1.738
Argitalpenak	168	<b>SARE SOZIALETAKO JARRAITZAILEAK</b>	
Laguntzak eta dirulaguntzak	772	Twitter	8.644
Prestakuntza	165	Facebook	6.197

## 4. KOMUNIKAZIOA

### WEB-ATARIA EGUNERATZEA

Web-ataria eguneratzeko proiektuan aurrera egin da, Behatokiaren informazioa eta jarduketak eskuratzea errazteko.

### SARE SOZIALAK

Kontu bat ireki da Twitter-en, Behatokiaren lan-eremuaren intereseko eduki propioak zein kanpokoak zabaltzeko.

→ <https://twitter.com/kulturbehatokia>

### IKASTARO ETA JARDUNALDIETAKO PARTE HARTZEA

#### • Mintzola UIK (ekainak 21-22)

Mintzolak Udako Ikastaroetan antolatutako Pandemia garaiko kulturgintza: egoera eta erronkak mintegian parte hartu du Behatokiak. Hitzaldiaren izenburua *Pandemiak kulturaren ondorioei begirada bat behatokiaren talaiatik* izan zen, eta pandemia aurreko testuinguruan kokatzeko hainbat datu eta krisian abian jarritako tresnak aipatu ziren. Behatokiaren datuez gain, Kulturklikeko kultura-agendaren berriazko ustiaketa egin zen eta zenbait ondorio atera ziren pandemiak azaleratu duenari buruz, ikasitako ikasgaiei buruz eta etorkizunari begira airean geratu diren galderari buruz.

#### • EHU-UPV (ekainak 29-30)

Parte-hartze kulturala aztertzeke mintegi honetan hartu da parte, hitzaldi honekin: *Kulturaren euskal Behatokiaren ibilbidea parte-hartze kulturala aztertzeke. Metodologia eta emaitzak*. Parte-hartzea ezagutzeko elementu garrantzitsuak eman zituen, Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren azterketa-gaitasunean oinarrituta, eta batez ere, kultura-ohituren panelean oinarrituta. Azterketarako giltzarri metodologikoak azpimarratu ziren.

#### → CCIs and Innovation Contrast

Behatokiak parte hartu du 2021en I+G+b arloari buruzko alderaketa-prozesuan. Hiru lantalde antolatu ditu horretarako. Era berean, azaroaren 11n eta 12an Bilbon izandako jardunaldietan hartu du parte. Orkestrarekin lankidetzan egin duen kultura- eta sormen-industrien perimetraje-proiektua aurkeztu zuen Behatokiak.



## 5. BESTE JARDUERA BATZUK

### TXOSTENAK EGITEA, AHOLKULARITZA EMATEA, KONTSULTAK EBAZTEA ...

Bai barnekoak (Kultura Sailburuordetzak egindakoak), bai beste administrazio, elkarte, eragile partikular eta abarren kanpo-eskaerak.

## 6. BEHATOKIAREN LANA ZIFRATAN

### Urteko estatistika-eragiketen kopurua

2021ean, informazioa sortzeko lan egiten jarraitu zen, ohi bezala, eta horrek egonkortasuna eman zien sail estatistikoei, perspektiba, trinkotasuna eta alderagarritasuna eman baitzien. Estatistika-arloa honako estatistika-lan hauen arabera egin da:

- "Kultura-alorreko finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika 2020": zazpigarren edizioaren landa-lana egin da eta berrikuntza bat izan du: sormen-industrietan gastu publikoa sartzea.
- "Arteei, kultura-industriei eta sormen-industriei buruzko estatistika 2019": zazpigarren eta bigarren edizioa aztertu, interpretatu eta argitaratu dira, hurrenez hurren.



### Urteko ikerketa eta azterketa kopurua

- \_ Ikerketa kualitatiboak: "Kultura pandemia-garaian: Durangoko Azoka", "Kultura-ohitura digitalak: joerak eta gakoak" eta "Kaleko arteen balio soziala".
- \_ Kultura- eta sormen-industrien kokapenaren azterlanean "EAEko kultura- eta sormen-industrien perimetroa" azterlana argitaratu da.
- \_ Luzetarako panela: beste jasoaldi bat egin da, zazpigarrena, "Kultura Ohituren eta Kontsumoaren panela", 204 panel-partaidez osatua. Dagozkion dokumentuak bideratu dira: Ohituren panelaren buletina eta datuen analisiaren txostena.
- \_ IKUSIKER proiektuko 14 buletin argitaratu dira (gazteek egiten duten IKTen erabilera eta ikus-entzunezkoen kontsumoa).
- \_ EUSTATEk eta LANBIDEk Euskadiko kultura-enpresei eta -kontratuei buruz 2017, 2018 eta 2019an emandako datuak argitaratu dira.

### Adierazleen sisteman eguneratutako adierazleen urteko kopurua

- \_ 2021ean, guztira, 129 adierazle eguneratu dira.
- \_ Genero-jarraipenaren adierazle-kopurua.
  - 2021ean, guztira, 12 genero-adierazle eguneratu dira.
- \_ Hizkuntza-politiken jarraipena egiteko adierazleen kopurua.
  - 2021ean, guztira, hizkuntza-politiken 19 adierazle eguneratu dira.
- \_ Behatokiko estatistika-emaitzak jasotzen dituzten pertsonen urteko kopurua.
  - 1.200 eragile.

### Jardunaldien eta lan-topaketen urteko kopurua

- \_ Hitzaldiak aurkeztu dira hiru jardunaldi edo biltzarretan.
- \_ 13 jarraipen- eta koordinazio-bilera egin dira.

